

LANDAREN ESKLABOAK

Milioika migratzaile, nekazaritza-sektoreko esplotazioaren biktima

Europar Batasune-ko nekazaritza-sektorea berriki atxikitako estatuetatik eta Europakoak ez diren herrialdeetatik datorren eskulan etorkinaren mende dago. Finlandiari, Estatu frantsesari, Alemaniari, Greziari, Italiari, Herbehereei, Poloniari, Estatu espainolari eta Suediari buruzko ikerketa batek erakutsi du kontinentea elikatzen duten milioika langile etorkinek arazo ugari dituztela: lan-baldintza oso gogorrak, lanaldi luzeak, eta enplegatzaileak esplotatzaileak dira askotan.

Comillas Eliz Unibertsitateko Migrazioei buruzko Azterlanen Unibertsitate Institutuko (IUEM) ikertzaileek, Oxfam Intermonekin batera, argitaratu-

 **GIZA ESKUBIDEAK** / Ibai AZPARREN

Europako nekazaritza-sektorean lan egiten duten lau pertsonatik bat, gutxi gorabehera, lan-esplotazioaren eta eskubide-abusuaren biktima diren migratzaileak dira. Ikerketa batek langile horien soldata baxuak, bizitoki prekarioak eta osasun-zerbitzu eta eskubideen falta azaleratu ditu.

tako “Funtsezkoak baina ikusezinak eta esplotatuak” txostenaren arabera, Europako nekazaritza-industriak langile migratzaileen esplotazio sistematikoa eragiten du. Europako nekazaritza-sektorean lan egiten duten lau pertsonatik bat, gutxi gorabehera, lan-esplotazioaren eta eskubideen urraketan biktima dira.

2,4 milioi pertsona migratzaile ari dira Europan fruta eta barazkiak biltzen. Hala ere, txostena argitaratu duten iker-tzaileek ohartarazi dute datu hori askoz ere handiagoa izan daitekeela, ez baitira sartzen sa-soiz kanpo lan egiten duten langileak, bitartekaritza-entzuen bidez kontratatutakoak edo agiririk gabeko langileak.

Magdalena, jatorri poloniarreko nekazaritza-langilea.
Pablo TOSCO / OXFAM INTERMON

Askotan, etorkinek ordaindu behar izaten dute kontratatua izateko, eta horrez gain, lanean hasten direnean, soldata murrizten zaie mediku-aseguru pribatua estaltzeko, lan egiten duten herrialdean gizarte-segurantzak estaltzen ez dituelako. Etorkinen jatorriari dagokio nez, nahiz eta eskulanaren proportzio handi bat EBko kide berrienetatik datorren, hala nola Errumaniatik eta Bulgariatik, hainbat nazionalitate daude ordezkatuta, eta horien artean daude, aipatu bezala, EBtik ez datozen etorkin irregular asko, hau da, herrialdean egoteko dokumentaziorik ez dutenak. Azken horientzat, lan-kontratu bat, baldintza bidegabeekin, ez oso etikoekin edo esplotazio-baldintzekin ere, egoera erregularizatzeko eta Europako herrialde gehienetan bizileku baimendua lortzeko modu bakarretako bat da. Horrek haienganako eragin handiagoa ematen die enplegatzaile batzuei, eta haiek esplotatzeko aukera handiagoa ere bai.

«Enplegatzaileek nekazaritzako langile migratzaileekin duten abusu- eta indarkeria-portaera hainbat iturritan dokumentatuta dago», salatu du Oxfamek: «Frantzian, Italian eta Espainian isilik egotera behartutako langileen kasuak dokumentatu dira, mehatxuak, hitzezko indarkeria, umiliazioak, irainak eta abusu arrazistak. Italian ere salatu izan dira langileei ez ordaintzeko eta kezatzeko beldur izateko larderia-praktikak. Espainian, Herbehereetan eta Alemanian, kasu dokumentatu batzuetan, beldurra erabili da mehatxuak eginez edo soldatak nabarmen murrizten dituzten isun arbitrariorak ezarriz».

«Europako nekazaritza-industriaren zatirik ahulenaren




egoera azaldu nahi dugu», dio Carlos Ruiz Oxfam Intermoneko ikertzaile eta txostenaren egilekideak. «Migratzaileak nekazaritzako elikagaien katearen egiturazko elementu bihurtu dira, eta horrek esan nahi du jasaten dituzten abusuak ere egiturazkoak direla», gaineratu du.

SOLDATA BAXUAK

Aztertutako bederatzi herrialdeetan, Finlandian izan ezik, migratzaileek gutxieneko soldata baino soldata txikiagoak jaso ohi dituzte, eta emakumeek, are baxuagoak. Ikerketak genero-desberdintasun kronikoa islatu du: adibidez, Huelvan, Espainian, ikerketetan parte hartu zuten emakumeen erdiek baieztatu zuten gizonezko homologoek baino gutxiago irabazten zutela; Italian, bestalde, emakumezko langile etorkinek diote gizonen baino %30 gutxiago irabazten dutela.

«Migratzaileek Europako nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren sostenguan betetzen duten egitura-rola gorabehera –zeinak estatuak zein EB bera funtsezko langiletzat jotzera eramane zituen pandemia garaian–, sistematikoki esplotazio-logiken mende dagoen kolektiboa dira», nabarmendu du Yoan Molinero Gerbeau IUEMeko ikertzaile senior eta txostenaren egilekideak.

Txosten horren arabera, abusu-kasuak –sexu-abusua, larderia-taktikak eta grebei erantzuteko indarkeria, besteak beste– ohikoak dira Europako nekazaritzako elikagaien sektorean. Aldi baterako baimenak dituzten edo egoera irregularrean dauden langile migratzaileek are esplotazio-arrisku handiagoa dute, lan-egoera kaltebera dutelako. Kasu muturrekoenetako bat Suedian lan egiten du-



Landako langile bat, Huelvako bere ostatuan sartzen.
Pablo TOSCO / OXFAM INTERMON

ten Thaiandiako jornalariena da, astean sei egunetan 12-19 orduz lan egiten baitute.

Txostenak lan-prekaritatea larriagotzen duten beste faktore batzuk aipatu ditu, hala nola bitartekarien gehiegikeriak, destajuko lana –autoesplotaziora eramaten duen edo handizkarien edo supermerkatuen inposizioak, bereziki azken orduko eskaerek eragiten duten lan kargak.

BIZITOKI PREKARIOAK

Txostenaren arabera, langile migratzaileen bizitokia «prekarioa, gainpopulatua, garestia eta hiriguneetatik urrundua» izan ohi da. Zenbait langileren testigantzen arabera, etxebizitza horietako ikuskatzaileek xantaia sexuala egin dute.

Gainera, langile batzuk oinarrizko zerbitzurik ez duten bat-bateko kokaleku marjinaletan bizi dira –ur korrontea, elektrizitatea, berokuntza eta hondakinen kudeaketa falta dituztenak, esaterako–, eta

horrek gaixotasunak eta suteak izateko arriskua areagotzen du. Halaber, egiaztatu da langile batzuk etxerik gabe daudela.

«Langile horien bizitokien erabateko prekaritateak agerian uzten du enpresariak eta botere publikoek ikusezin bihurtutako kolektibo baten bizi-baldintzen ardura hartzeko utzikeria», azpimarratu du, ildo horretatik, Yoan Molinerok. Ikertzaileek salatutakoaren arabera, langile migratzaile horiek isolamendu gogor bati aurre egin behar

izaten diote, eta horrek zaildu egiten du bertako hizkuntzan eta gizartean integrazioa, eta «enplegatzaileen kontrolaren eraginpean» uzten ditu, gainera.


OSASUN ZERBITZURIK GABE

Gainera, txostenak dio istripuak eta lesioak ohikoak direla nekazaritza-sektorean. Izan ere, enplegatzaileek askotan ez diete trebakuntza eta babes-ekipamendu egokirik ematen; batez ere, Estatu espainolean eta Italian. Gertakari ohikoenen artean, erori-koak, ebakiak, animalien hozkadak, bero-kolpeak eta makinaren erabilera okerrak eragindako lesioak daude.

Txostenaren egileen arabera, pestizidak erabiltzeagatik intoxikazioa jasan duten langileen kasu dokumentatuak erregistratu dira. Gainera, «muturreko» gertakari bat nabarmendu dute txostenek, Murtzian izandakoa: gizon bat egun oso batean urik jaso ez

Kontinentean nekazaritza-sektorean lan egiten duten 9,2 milioi pertsonetatik 2,4 milioi aldi baterako langile atzerritarrak dira, baina kopurua handiagoa izan daiteke

Aztertutako herrialde gehienetan migratzaileek gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen dute, eta emakumeek are ordainsari txikiagoak jasotzen dituzte



zuelako hil zen, 44 gradurai-noko tenperaturan.

«Nekazaritza-sektorean lan egiten duten migratzaileek erronka ugari dituzte osasun-zerbitzuetara iristeko, beren eskubideei buruzko informazioz ez izatetik oztopo administratibo eta linguistikoetara. Askok ezin dira erregistratu osasun-sistemetan, helbide finkorik ez dutelako, eta aldi baterako langileak sarritan osasun-estalduratik kanpo daude», azaldu du Ruizek.

Alemanian, langile errumaniar bati osasun-aseguru bat kobratu zitzaion, baina gero seguru hori ez zen existitzen. «Lan-istripu bat gertatu zenean, enpresak bere poltsikotik ordaintzeko agindu zion», salatu du Oxfamek.

Testuinguru horretan, Europar Batasunak Behar Bezalako Arretari buruzko zuzentaraua onartu du. Arau horrek eskatzen du enpresek giza eskubideak eta ingurumen-eskubideak errespetatzea haien

hornidura-katearen etapa guztietan. Ikertzaileek azaldu dutenez, araudi horrek justiziarako sarbidea eta biktimentzako konpentsazioa hobetuko lituzke, eta, aldi berean, nekazaritzako elikagaien industriari eta txikizkariari giza eskubideen urraketen ondorioak prebenitzeko eta onartzeko erantzukizuna ezarriko lieke.

ZER EGIN?

«Europako liderrek ezin dute ahaztu nekazaritza-industriari dagoen esplotazioa, europar guztien erosketa-orga-

Txostenaren arabera, migratzaileen aurkako sexu-abusuak, larderia-taktikak eta greben kontrako indarkeria ohikoak dira Europako nekazaritzako elikagaien sektorean

Oxfam-ek eskatu du migratzaileen presentzia sustatzea egitura sindikaletan, prestakuntza egokia jasotzea eta nekazaritzarako laguntzek lan-arauen errespetua kontuan hartzea

Nekazaritza sektoreko langile migratzaile bat, Huelvako kokaleku inprobisatu batean duen ohiko ostatuan.
Pablo TOSCO / OXFAM INTERMON

txoan sartzen dena. Baina itxaropena dago hornidura-katei buruzko EBko legedi berriarekin: esplotazioari amaiera eman liezaioke, Europako herrialdeek beren legedietara behar bezala eraman eta inplementatzen badute», adierazi du Ruizek.

Halaber, Oxfam Intermonek eta Comillas Eliz Unibertsitateko Migrazioei buruzko Azterlanen Unibertsitate Institutuko (IUEM) ikertzaileek eskatu dute migratzaileen presentzia sustatzea egitura sindikaletan, migratzaileek prestakuntza jasotzea ulertzen duten hizkuntza batean, behar bezalako ekipamendua ere jasotzea eta Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) laguntzek kontuan hartzea hartzaileek lan- eta gizarte-arauak errespetatzen dituztela.

«Egokiena langile etorkin asko Europako herrialdeetako egitura sindikaletan integratzea litzateke. Epe laburrean, estatu mailako sindikatuek ziurtatu beharko lukete esku-

lan horren berariazko beharrak beren agendan erabat integratzen direla, lehentasunezko aldarrikapen gisa, Europa osoan esplotazioa oso larria delako eta eskubide sozialik ez dagoelako. Emakumeen ordezkaritza bermatzea ere funtsezkoa da, aurre egin behar dieten arazo eta arrisku espezifikoaren ondorioz», nabarmendu du txostenak.

Oxfam Intermonek Europako ustategietako lan-ikuskapenen maiztasuna eta eraginkortasuna handitzea ere proposatu du, lan-arauak eta giza eskubideak betetzean zentratuz. «Funtsezkoa da behar adina baliabide esleitzea ikuskapen horiei, eta, aldi berean, babes argiak ezartzea, lan-araudiaren eta im-migrazio-araudiaren aplikazioa bereizteko. Horrela, saihestu egingo da ikuskapenen ondorioz agiririk gabeko langileak atxilotzea edo deportatzea», dio txostenak

Etxebizitzaren arazoari dagokionez, txostenak iradoki du EBk funts espezifikoak esleitu behar dituela landa-eremuko langile migratzaileek sufritzen duten etxebizitzarazko larriari aurre egiteko, arreta berezia jarrita kokaleku informaletan. Funts horiek etxebizitza publiko iraunkorrrak eta egokiak garatzeko erabili behar dira, epe luzerako erantzun iraunkorrik eskaintzen ez duten aldi baterako konponbideetatik harago.

Gainera, etorkinen kontzentrazio handia dagoen eremuetan garraio publikoaren sistema indartzeko funtsak esleitzea ere eskatu du txostenak. Enplegatzaileek ere parte hartu behar dute, langileak beren lantokietara modu seguruan iritsi ahal izatea eta oinarritzko zerbitzueta-rako sarbide osoa bermatuz.